

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Bezeroak, ezinbestekotzat joko ditugu gure proiektua gauzatzeko orduan.

Lehenik eta behin, Getxoko udaletxean aurkeztuko dugu gure proiektua, bertako herritarrei eskeinitako baliabidea izango baita. Azken finean, bezeroak, edozein enpresa edota proiekturen bihotza dira, irabaziak emango dizkiguna eta lana

sortzea ahalbidetuko diguna.

Guk **eskaintzen dugun zerbitzua, ekintza ezberdinak egiteko lekua** izanez, hainbat ekintza egin daitezke; jaialdiak, ezkondu aurreko jaialdiak, graduazioak,... Lokala alokatzeko aukera egongo denez, , edozein festa antolatu daiteke bertan, eta asteburuetan, aldiz, diskoteka izango da. Gauzak horrela, **Uribe Kosta inguruko herritarrei zuzenduriko zerbitzua izango da hasiera batean, 16 urtetik gorako biztanleentzat hain zuzen ere.**



Aurrekoaren harira, gure **bezeroen ezaugarriak** ezagutzea oso garrantzitsua da, dena nahi dugun bezala atera ahal izateko. Alde batetik, egunaren arabera adin ezberdineko taldeak egongo dira, horrek esan nahi du, adin guztietarako, produktu, musika edota hainbat faktore aldakor izango ditugula. Demagun, asteburu batean, gazteentzako [DJ Markelin](#) artistak jotzen duela, kasu horren baitan, jarraitzen duten gazteak edota ez hain gazteak hurbilduko dira bertara.



Bigarrenik, musika mota, diskoteka bateko faktorerik garrantzitsuenetarikoa da bezeroak erakartzeko. Badakigu, bakoitzak **musika ezberdina** gustoko duela, horregatik, hortaz konsziente garenez, bi areto sortuko ditugu, baten musika mota bat eta bestean, beste musika mota bat.

Balorezko proposamenean komentatu dugun bezala, adingabekoek ez dute aukerarik diskoteketan sartzeko eta beraien aisiaz gozatzeko ez dute leku fisikorik izaten. Horregatik, honi soluzioa eman ahal izateko, 18 urtetik gorakoek, aukeratu dezakete zein egunetan joan, adingabekoak, aldiz, bakarrik astean behin joan daitezke. Azekenan, honekin esan nahi dena da, ez dela adin mugarik egongo, denok disfrutatu ahalko dugu adinagatik kexatu gabe. Gauzak horrela, merkatu masibo baten aurrean egongo garela esan dezakegu (betiere 16 urtetik gorakoen artean).



Musika mota desberdinak: techno, reggaeton, erromeria, 80 hamarkadako musika, rock-a... gustoko duen jendea etorri daiteke.

Hau guztia kontua harturik, honakoak dira **gure bezeroen ezaugarri komunak**:

Musika gustuko duten pertsonak
Parrandan joatea gustatzen zaien pertsonak
Jendea ezagutu nahi duten pertsonak
Inguru seguruak bilatzen dituzten pertsonak
Hurbiltasuna bilatzen duten pertsonak

Gune seguru bat bermatuko dugu gure diskotekan, bezeroen segurtasuna garrantzitsua baita guretzat. Gauzak horrela, errespetu faltak, arrazakeria, matxismoa eta homofobia ez ditugu gure diskotekan onartuko.

Gauza guzti hauek kontuan harturik, , gure diskoteka **merkatu masibo bat da**, bezero ezberdinen beharrak eta arazoak asetzen eta konpontzen ahaleginduko garelako, eta horrekin batera enpresa dibertsifikatua, laguntza edota zalantzak izanez gero, gure sare sozialetara edo webgunera jo dezakete.